

/ Nabarmentzekoak

- > Abian da "Getxo Hurbil sariak" Merkataritzako Sarien bigarren edizioa(2. or.)
- > Izarok "Cerodenero" diskoa aurkezteko kontzerturako sarrerak agortu ditu(3. or.)
- > Jabekuntza Eskolako Las de Afuera antzerki taldea Granadako Ma(g)dalenas Iberislas Jaialdian(4. or.)



* Tor magoak jasoko du 2024ko Argia Ereiten Euskara Saria (4. orr)

Kontzertua. Hilak 22, ostirala, 21:00h, Muxikebarrin, Travellin' Brothers. 18€.

Antzerkia. Hilak 23, larunbata, 19:00h, Muxikebarrin, "Antígona", Sin Remilgos konpainiarekin. 5€.

**A-
GENDA**

Dokumentua talde politikoekin partekatu dute aste honetan bertan

2025erako udal Aurrekontuaren proiektua %6 igo da eta 137 milioi eurotik gorakoa da

Euskadik bizi duen hazkunde ekonomiko neurritsu eta egonkorrari esker, Udalak %6ko igoera proposatu du 2025erako aurrekontu-aurreikuspenean, eta, beraz, 137.182.112 eurokoa da udal-Aurrekontuaren proiektua. "Hazkunde hori, batez ere, udalaz gaindiko administrazioek Udalari egiten dizkieten ekarpenen gorakadan oinarritzen da; bai eta herritarrek kirol, kultura eta gizarte arloetan udal-zerbitzuak gehiago erabiltzeko joeran ere. Era berean, Udalak udalerriko kaleetan biltzen diren hondakinen zati handi bat saltzeko duen gaitasuna nabarmentzen da, 2024ko azken hiruhilekoan martxan jarritako zerbitzu berriaren ondorioz", Udal Gobernutik adierazi dutenez. Udalak zorrik ez duen arren, aurreikusten da gehienez ere 8 milioi euro arteko zorra erabili ahal izango duela, behar izanez gero, udal-instalazioak hobetzeko inbertsioak babesteko.

Udal gobernuak (EAJ-PNV eta PSE-EE) oposizioko taldeekin negoziatzeak dakar, aurrekontuak onartzeko izapide administratiboekin batera, aurrekontuen ezohiko osoko bilkura abenduaren 19an egiteko aurreikuspena. Gobernu taldeak asteartean bertan, hilak 12, eman zion oposizioari Aurrekontu proiektuaren inguruko dokumentazioa.

13.350.000€ inbertsiotan

Proiektu honek barne hartzen ditu udal gobernuak eta oposizioko alderdi nagusiak, PPK, 2024ko aurrekonturako adostutako hainbat puntu, hainbat urtetarako puntuak. Horien artean, bolumen ekonomikoagatik, honako hauek nabarmentzen dira:

- Herritarren Segurtasunaren arloan 10 polizia gehiago egotea, eta Gizarte Kohesioaren arloan, gizarte-laneko eta esku-hartze komunitarioko teknikari gehiago egotea.
- Areetako Las Mercedes kaleko aparkaleku berria eraikitzen hastea.
- Eta hiri-autobusaren zerbitzu berriaren proba pilotua egin eta martxan jartzea.

Hainbat urtetarako beste proiektu bat ere jasotzen du, Udalbatzak ia aho batez berretsia,



hala nola, gutxienez 1.585.000 euro bideratuko dira 2025ean Udal osoaren Eraldaketa Digitalerako proiektura; eta 2027ko ekitaldian amaitzea aurreikusi da.

Gainera, 2025. urtean Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) behin betiko onartzea aurreikusita dago. Hori dela eta, 3.150.000 euro sartu dira Etxebizitzan, HAPO berritik eratorritako Etxebizitza Plan berriak, onartzen den unetik, aurrekontu-babesa izan dezan. Horrekin batera, hirigintza-plangintzan, lehendik daudenaz gain, aldi baterako langile espezializatuak ere sar daitezkeela aurreikusten du aurrekontuak.

Herritarrek Aurrekontu Parte-hartzaileen programaren bidez finkatutako lehentasunek aurrekontuan ere badute lekua, milioi bat euroekin.

Udal eskola publikoetako obrak 745.000 eurokoak izango dira, eta oso zehatz zehazten dira, alde zuzenetik ikastetxeetako zuzendaritzek eta Udalak landu baitituzte.

Udal eraikinetako eraginkortasun energetikoarekin lotutako inbertsioetarako ere lekua dago: 450.000 euro Areetako Andrés Isasi musika eskolan aerotermia-sistema bat instalatzeko, eta osoko bilkuretako mozioetako batean onartutakoetarako, hala nola Biotz Alai plazaren egokitzapen estetikorako 140.000 euro bideratzea edo udal hilerria hobetzea, 300.000 euroko hasierako inbertsioarekin.

Aurrekontuan sartutako inbertsioak, guztira, 13.350.000 eurokoak dira. "Kopuru horretan oposizioarekin negoziatzeko aukera dago; izan ere, helburu jakinik gabe, 2.310.000 euro gordetzen dira irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko, eta 750.000 euro mendekotasuna duten adinekoentzako ostatueta inbertitzeko. Aurrekontuen negoziazioaren fasean, Fadurako errugbi eta atletismoko harmailen eraikin berria bezalako proiektu handien finantzaketa bermatzeko akordioak lortzeko aukera ere proposatuko diegu oposizioko alderdiei", tokiko Gobernutik adierazi dutenez.



AZAROAK 14 OSTEGUNA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. jardunaldiak. Dokumentala eta mahai-ingurua. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "No estás sola: la lucha contra la maldad" Almudena Carracedo zuzendariarekin. Antolatzailea: Gizatiar elkarte.

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Andrew Haighen "Descendidos" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Xendazaletasun. Musikaren ibilbidea. Izki Parke Naturala. Irteera eta bazkaria, azaroak 24, igandea. Izena emateko epea zabalik dago. Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea. <https://etorkizunamt.com/>

AZAROAK 15 OSTIRALA

Umerezko ikuskizuna. 19:30ean, Muxikebarrin, "FutbolisTOC" Zuhaitz Gurrutxagarekin (gazte-leraz). 10€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Hlynur Palmasonen "Godland" (gazte-leraz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Zine Foruma. "Il Cine: Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo". 18:30ean, Romo Kultur Etxean, Paul Greengrassen "Capitan Phillips" filmaren proiektzioa. "Responsabilidad y heroismo" (gaztelaniaz). Moderatzailea: José Manuel Gutiérrez (Artearen Historiako irakaslea). Doan. Erreserbak eta informazioa: cineforumgetxo@icmediaeuskadi.es

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica". Hizlaria: Diego de Amigo, biolin irakaslea eta konpositore garaikidea. Informazio gehiago eta izena emateko (dohainik): <https://allantica.org/>, info@allantica.org Tel. eta WhatsApp: 650 697 627 Antolatzailea: All'Antica Musika Kultur Elkarte.

Liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Benta auzogunean (Angel Etor. 49), "Mujeres que mueven montañas" liburuaren aurkezpena Begoña Santos Olmeda egilearekin.

Bihotza Gazte. 20:30ean, Azebarri Kultur Elkartean egingoan, Josu Landeta, Xabier Arriaga "Txiplas", Haira Aizpurua eta Xabat Illarregirekin. Doako sarrera. ALBEK antolatuta.

AZAROAK 16 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Izaro abeslariaren emanaldia. 25€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Folk Rippers. 5€.

AZAROAK 17 IGANDEA

Zinematik. 12:00etan, Muxikebarrin, "Momias". 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Lassie, una nueva aventura". 2,50€.

Haurrentzako musika-ikuskizuna. 16:30ean eta 19:00etan, "Bisonte-mastodontearen bila" Ene Kantak taldearekin (euskaraz). 6€.

Antzerkia. XIX. Emakumeak Eszenan Zirkuitua. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Los ángeles de Xabín" (gazte-leraz). 4,50€.

AZAROAK 18 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00ean, Romo Kultur Etxean, "¿Cómo acabar con la pobreza? Renta de Garantía de Ingreso-RGI y Renta Básica Universal-RBU. Hizlariak: Lucía Gorjón (Ekonomian doktorea) eta Iñaki Urbarri (ekonomialaria). Informazioa: <https://sinopeblog.wordpress.com/> Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte.

AZAROAK 19 ASTEARTEA

Hitzaldia. 18:15ean, Romo Kultur Etxean, "Hablando de la EPOC-Enfermedad Pulmonar Obstructiva Crónica". Hizlariak: Amaia Aranburu y Maider Azkuenaga (OSI Galdakaoko Neumologia zerbitzua). Antolatzailea: Gizatiar elkarte.

AZAROAK 20 ASTEAZKENA

Liburu-aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, Villamonten, "Inclusión radical" liburuaren aurkezpena (gaztelaniaz) Christian Rodríguez Rodríguez egilearen eskutik.

Idazaleen txokoa. 19:15ean, Algortako Villamonteko Kultur Etxean. Garazi Basterretxeak gidatuta. Doan. Egizuk antolatuta.

AZAROAK 21 OSTEGUNA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. jardunaldiak.

Hitzaldia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Efectos devastadores en las mujeres supervivientes de maltrato" Carmen Serrano idazlearekin. Antolatzailea: Gizatiar elkarte.

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean, Villamonten, "Anancy y la hora de los cuentos" (gaztelaniaz) Sonyaguar Fuegoarekin. 5 urtetik aurrera.

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Asier Altunaren "Amama" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

AZAROAK 22 OSTIRALA

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Travellin Brothers. 18€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Delphine Girarden "Victima imperfecta" (gazte-leraz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Zine Foruma. "Il Cine: Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo". 18:30ean, Romo Kultur Etxean, Peter Landesmanen "La verdad duele" filmaren proiektzioa. "La conciencia frene a los intereses" (gaztelaniaz). Moderatzailea: José Manuel Gutiérrez (Artearen Historiako irakaslea). Doan. Erreserbak eta informazioa: cineforumgetxo@icmediaeuskadi.es

AZAROAK 23 LARUNBATA

Ipuin-kontaketa: Storytime. 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "The dress maker" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): ge-txo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es Antolatzailea: Kids&Us Algorta-Getxo.

Antzerkia. 19:00etan, Muxikebarrin, "Antígona" (gazte-leraz) Sin Remilgos konpainiarekin. 5€.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Hij@s del Pop and Roll" Eskuz Esku, Biotz Alai eta Lilita abesbatzekin. Sarrerak: <https://vi-vetix.com/es> plataforman bakarrik.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "The HalfNelsons". 5€.

AZAROAK 24 IGANDEA

Zinematik. 12:00etan, Muxikebarrin, "Turuleka oiloa" (euskaraz). 2,50€.

Antzerkia. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Todas a una" Eskuz Esku elkartean Las Guindillas taldearekin. 5€.



Elkarretaratzea, Memoriaren Egunagatik

Azaroaren 10ean urtero ospatzen den Memoriaren Eguna dela eta, Amaia Aguirre alkateak eta EAJ-PNV, PSE-EE, EH-Bildu eta Elkarrekin Podemoseko udal ordezkariak bost minutuko elkarretaratze isilean hartu zuten parte astelehenean, hilak 11, Udaletxe aurreko zabalgunean eguerdiko 12etan. Memoriaren Egunaren oroitza, terrorismoaren eta legez kanpoko polizia-indarkeriaren biktimak oroitze eta omentzeko, iraganaren hausnarketa kritikoa egitea du helburu.

Abian da "Getxo Hurbil sariak" Merkataritzako Sarien bigarren edizioa

Udaleko Ekonomia Sustapen Arloak, udalerriko merkataritza elkarteekin batera, Getxo Hurbil Sariak Getxo Merkataritzako Sarien bigarren edizioa jarri du abian. Abenduaren 5era bitartean aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak herritarrek, merkataritza-elkarteek eta beste erakunde batzuek, online, udalaren webgunearen bidez: <https://tinyurl.com/4h2z-m5un>



Juanma González Getxolan-Ekonomia Sustapena Arloaren zinegotziak adierazi duen bezala, "ekimen honen helburua da udalerriko merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten merkataritza-establezimenduak eta zerbitzu pertsonalen establezimenduak ezagutzera, sustatzea eta ikusaraztea, bai eta sektoreko eragileen lanari balioa ematea eta herritarren parte-hartzea bultzatzea ere". Guztira, 6 kategoriatar aurkeztu ahal izango dira hautagai-proposamenak:

- Tradizioa eta ibilbidea, 20 urtetik gorako esperientzia
- Komertzio sortu berria (azken hiru urteetan irekia) eta ekintzailtza
- 360º iraunkortasuna, ingurumena eta gizartea errespetatzen dituen kontsumo arduratsua sustatzen duten negozioetarako.
- Berrikuntza. Negozio ereduaren eraldaketa, produktuei balioa sortu dieten zerbitzuak sartu dituztenentzat.
- Ekin merkataria saria, udalerrian sektorea dinamizatzeko kanpainekin zerikusia dutenentzat.
- Getxoren arima, hurbileko kontsumo-saltokiei zuzendua, bokazioagatik, konpromisoagatik eta bezeroekiko arretagatik Getxoko ikur direnak.



Balkoi eta Leihoen lehiaketetako sariak banatu dira

Aste Berdearen barruan antolatutako VIII. Balkoiak eta Leihoak Edertzeko eta II. Argazki Lehiaketetako sariak eman zituzten iragan astean Algortan. Balkoiak eta Leihoak Edertzeko lehiaketan, lehenengo saria Mari Mar Gonzálezek jaso du (300 euroko bonoa) eta bigarrena Soraya Bustamantek (150 euroko bonoa). Argazki lehiaketari dagokionez, garailea Josu Gutierrez izan da eta bigarren sailkatua Itziar Gallastegi (100 euroko bono bana eskuratu dute). Bonoak, Getxoko saltokietan lorezaintzako produktuak erosteko dira.

XVI. GetxoBlog topaketa

Datorren larunbatean, azaroak 30, GetxoBlog topaketaren XVI. edizioa egingo da BiscayTik-en egoitzan, Zugatzarte etorbidean. "Analizando la inteligencia humana y artificial" lema-pean, Mikel Agirregabiriak bultzatutako ekimen honen helburuak egun batez jardunean dauden blogariak biltzea, Getxo ziberespazioan zabaltzea eta Adimen Artifizialaren aukerak herritarrei hurbiltzea dira.

Informazio gehiago eta izena emateko: <https://labur.eus/gVBpg>

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jalaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Izarok “Cerodenero” diskoa aurkezteko kontzerturako sarrerak agortu ditu



Izaro Andresek, Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo azken urteotan arrakasta gehien izan duen euskal artistetako batek, kontzertua eskainiko du larunbat honetan, azaroak 16, Muxikebarrin. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrerak agortu dira.

Bere lehen lau albumei esker aurrerarik gabeko arrakasta izan ondoren, mallabiarrak gelditu eta musikarik gabeko negu luze bat gaudituz behar izan zuen. Orain, *Cerodenero* aurkezten du, popa, sustraia eta elektronika gailentzen dituen diskoa. Disko kontzeptuala da, barnera egindako azken begiradaren emaitza.

Lan honetan, dagoeneko zeharkatuta dauden munduak berrikusi ditu, baina leku berri batetik, hain samurtasunez eta indarrez datorrenari heltzeko, betiere edertasunaren aldarria eginez.



Kantaldia, The Folk Rippersekin

Getxoko The Folk Rippers taldearen kontzertua izango da larunbatean, hilak 16, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. 19:30ean hasiko da eta sarreraren prezioa 5 eurokoa da.

Taldeakideak María Estévez (teklata), Ainhoa Gutiérrez (bateria), Roxana Petcana (biolina) eta Irantz Garamendi (flauta) dira. Bere jatorri eta esperientzia ezberdinak aprobetxatzen dituzte euskal, irlandar, eskoziar, errumaniar edo greziar abesti tradizionalak uztartu eta desenkriptatzeko.

“FutbolisToc”, umorea terapia gisa

Zuhaitz Gurrutxagak, futbolari profesional ohia eta bakarrisketalaria, *FutbolisToc* umorezko ikuskizuna aurkeztuko du (gaztelaniaz) ostiral honetan, hilak 15, Muxikebarrin.

Elgoibartarrak, oraingoan, lehen mailako jokalaria bihurtu zenetik sufritzea egokitu zaion Nahasmendu Obsesibo Konpulsibo-TOC izango du hizpide. Bere esanetan, “ez dago norbere buruari barre egitea baino modu hoberik eguneroko arazoak eta gorabeherak erlatibizatzeke”. Sarrera: 10 €.



“Los ángeles de Xabin”, Romo Kultur Etxean

Romo Kultur Etxeak Bersarkada fundazioak antolatutako Emakumeak eszenan antzerki zirkuituaren eszenatokietako bat izaten jarraitzen du.

Igandean, hilak 17, 19:00etan, *Los ángeles de Xabin* taularatuko da, hiru emakume protagonista dituen korapilo-komedia: Lehendakari bat (historiako lehena), harreman politikoetan aditua den Miren Embido Amarrategi eta Marmarraxalen Armatiropun ertzain bat, aurkitzen dituzten arazoetatik bizirik ateratzen saiatzen direnak.



Egin behar ez den guztia erakusten duen ikuskizuna da, eta guztiaz eta guztiez barre egitea aldarrikatzen du.

Sarrerak 4,50 euro balio du.



“Tierra, Amor y Vida”, M^a José Rodríguez poema-liburua

M^a José Rodríguez García idazleak *Tierra, Amor y Vida* bere laugarren poema-liburua aurkeztu du Algortako Kultur Etxean, Villamonten. Liburu bat, dio, “erraz ulertzeko eta irakurtzeko modukoa”. Salamancan jaioa, baina duela hamarkada batzuetatik Getxon bizi dena, irakurle amorratua da eta gazte-gaztetatik hasi zen idazten, unibertsitateko irakasle batekin animatuta. Bere poesia sinplea da, ulerterraza, bizitzako gauzetan, egunerokotasunean inspiratua: natura, Kantauri itsasoa, familia... Orain arte argitaratuta dituen lau poema-liburuetakoa gaiak dira. Kolaboratzailea da Algortako Kultur Etxean hilero egiten den *Versadas* poesia klubean



“Bisonte-mastodontearen bila” Ene Kantakekin

Haurren musika talde gogokoenetako bat, Ene Kantak, Muxikebarrira itzuliko da igandean, hilak 17. Bi saiotan arituko da, 16:30ean eta 19:00etan, eta *Bisonte-mastodontearen bila* aurkeztuko du, euskaraz, Nerea Urbizuk idatzitako liburuan oinarritutako familientzako ikuskizuna. Ikus-entzunezko formatu batekin, eszenografia ikusgarri batekin batera, Aralar mendilerroko historiaurreko ingurune batera garamatza. Hurrek Aire, Asto, Sator, Oki eta Axeri pertsonaiei lagunduko diete Nafarroako musikak eta folkloreak pisu handia duten dantza eta abestiekin. Sarrerak 6 euro balio du.

Magiaren ikuskizunetan euskararen erabilera sustatzea-gatik eta, aldi berean, herriko euskararen aldeko jardueratan partaidetza aktiboa izateagatik jasoko du aurten Tor magoak (Aitor Bilbao Beramendi) 2024ko Argia Ereiten Euskara Saria. Izan ere, berak kulturaren erabilera sustatzeko esparru berri bat, magiarena, zabaldu du. Horrek umeak, gazteak eta helduak liluratzen dituen zerbait dauka eta euskaraz izateak balio itzela dauka. XV. edizioaren sari emate ekitaldia datorren azaroaren 19an, asteartean, izango da, 18:30ean, Muxikebarriko Arrigunaga aretoan.



Azaroaren 19an, 18:30ean, Muxikebarrin

Tor magoak jasoko du 2024ko Argia Ereiten Euskara saria

Tor mago getxotarrak pozik, hunkituta eta urduri jasoko du datorren azaroaren 19an euskararen gizarte erabilera babestea, sustatzea edo hedatzeko zereginetan egindakoa aitortzen duen Argia Ereiten Euskara Saria, aurreko urteotan beste batzuen eskutara joatea ikusi duena. *“Sorpresa erraldoia hartu dut. Saria aspalditik ezagutzen dut, izatez behin baino gehiagotan egon naiz sari emate ekitaldian eta orain notiziak joko zkanpo harrapatu nau. Nire ikuskizun gehienak euskaraz egiten ditut. Beti ikusi dut magia aukera paregabea dela euskara eskola mundutik ateratzeko, umeek ikusteko posiblea dela euskaraz gozatzea eskolaz kanpoko jardueratan”,* azaldu du getxotarrak.

42 urteko bizilagunak bizitza guztia darama magia egiten eta bere %90/95etik gorako ikuskizunak euskaraz izaten dira, hain ohikoa ez den esparruan euskararen erabilera sustatzeko lan handia egiten, bere bizitzan zehar 2.000 aktuzio

baino gehiago, ETBrentzako 300 saio pasatxo; enpresa, eskola edo herriko jaietan saioak, magia jardunaldiak, magia poteoak eta abar. Egun ikuskizun berriak muntatzen ere dabil, eraberritze prozesuan murgilduta, beste toki batzuetan egiten dutena ikasten, ondoren berak ikuskizun freskoak eta eguneratuak eskaini ahal izateko. Une honetan Gabonetarako eta datorren urterako saioak lotzen ari da.

Azti jaiotako getxotarra

Mago getxotarra lau urterekin konturatu zen magiarekiko grina zuela barnean, bere aititak hainbat magia jokoak egin ondoren. Handik aurrera beti ekin dio mundu horretan trebatzeari, informazioa, liburuak eta kutxa magikoak bilatzeari. *“Ez dago eskola modukorik, lana batez ere bakarkakoa izan da. Informazioa bilatzen, gero eta gehiago sartzen zara mundu horretan eta konturatzen zara inguruan magiarekin zoratu gehiago daudela”,* aitortu du.

Ingeniaritza industrialak ikasi zuen azti getxotarrak, eta lau urtez enpresa batean ingeniari aeroespaziala lan egin bazuen ere, hori uztea erabaki zuen, magian buru belarri sartzea erabaki zuelako, era profesionalean aritzeko. Berak azaldu duenez, *“erabaki horiek zailak izaten dira. Banekien magiaz bizi nahi nuela baina badaezpada Ingeniaritza ikasi nuen. Horregatik errazago izan zen probatzea magiaz bizitzea. Pausua naturalki etorri zen”.*

Magia euskaraz

Mago getxotarrarentzat hizkuntza oso garrantzitsua izan da beti, egiten dituen aktuzio gehienak familiarak (umeak eta gurasoak ikusteko modukoak) eta Euskal Herrian direlako. Berak beti nabaritzen du publikoa magiarekin gozatzeko prest dagoela. Bere hitzetan, magiak komunikatzeko hainbat formatu ditu, eta horregatik erraza da jarraitzea nahiz eta

euskara guztiz ez kontrolatu. *“Sarriritan etorri dira niregana ikusleak ikuskizuna bukatu ondoren zoriontzera, nahiz eta euskararik ez jakin ala gutxi jakin. Primeran pasatu dutela esaten didate, barre egin dutela, nahiz eta euskaraz ez egin”.*

Magiak harritzeko eta publikoarekin konektatzeko aukera ematen duela eta horrek beti daukala xarma dio getxotarrak. Horregatik, giro horretan euskarak magiarekin gozatzeko balio duelakoan dago, *“euskara hizkuntza delako ideiak, pentsamenduak eta kasu honetan nire magia transmititzeko bidea. Jendeak magia ikusi nahi duen bitartean eta euskaraz bizi nahi duen bitartean, komunikazio hori posible izango da. Duda barik, euskarak ez du beste hizkuntzen aurrean lotsarik izan behar, euskarak ere balio duelako edozein gauzatarako, aurrean daudenak ikusteko, entzuteko, ikasteko edo gozatzeko prest dauden heinean”*

Jabekuntza Eskolako Las de Afuera antzerki taldea Granadako Ma(g)dalenas Iberislas Jaialdian

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako Gure ahala zentroan antzerki laborategiko Las de Afuera taldeak *Entre dos mundos* antzezlanarekin parte hartu zuen urriaren 31tik azaroaren 3ra Granadan egin zen Ma(g)dalenas Iberislas-Zapalduen Antzerkia Jaialdian. Jaialdia Zapalduen Antzerkia izeneko metodologia erabiltzen duten taldeek antolatuta dute. Antzerki-tresna horrek egoera zapaltzaileei aurre egiteko aukera ematen du; kasu honetan, adinari, jatorriari, historiari, kulturari, gizarte-klaseari, sexu-orientazioari eta genero-adierazpenari dagokienez askotarikoak diren emakume-taldeena, besteak beste, ikuspegi feministatik. Jaialdian laborategiak eta tailerrak egin ziren,

eta obra bana antzeztu zuten Getxoko, Bartzelonako, Granadako eta Portoko taldeek..

Las de Afuera taldea Peru, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Argentinatik etorritako 35 eta 65 urte bitarteko bederatzi emaku-

mek osatzen dute, bi bideratzailek lagunduta (bata El Salvadorrekoa eta bestea Euskal Herrikoa). Taldeko kideak etxeko eta zaintzako lanetan aritzen dira Getxon.

“Entre dos mundos”

Entre dos mundos antzezlanak bi



kontinenteren artean bizitzeak suposatzen duena erakusten du, eta *“sistema burokratikoak, batzuetan arrazista dena, aeta gizartearen izaten diren aurreiritziak eta estereotipoak ere”,* azaldu dute taldeko kideek. Horiek argi dute *“ez direla makinak, baidak eta jakintzak, gaitasunak, nahiak eta beharrak dituzten pertsonak”.* Antzerki foro metodologiarekin aurkeztuta, publikoa gonbidatua izan zen aurkeztutako arazoa konpontzeko proposamenekin parte hartzea. Txalo zaparrada jaso zuen antzezlanak, eta bizi izandako esperientziari amaiera eman zion, *“oso bizi eta garrantzitsua izan zena, gure talde kohesiorako urrats handia izan baitzen”,* nabarmendu zuen Ainhoa Madariaga bideratzaileak.